

2-MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, haiek gabe ezin baitu enpresa batek luzaro iraun. Gure enpresaren helburu nagusia ez da diru kantitate handia lortzea, baizik eta ekoizten dugun produktua gure idealekin ados dagoen edozein bezerorentzat eskuragarria izatea nahi dugu eta, ahal badugu, kontzientziaturik ez dagoen pertsonengana ere ailegatu nahi dugu hau da, gure produktua gustatzea eta horren bidez, dauden erronka ekologikoei erantzutea eta pertsona horiengan interesa piztea.

- **Zein da zure bezeroa?**
 - Kontzientziatuta dagoen edozein adineko jendearentzako zuzenduta egongo dira gure produktuak,.
 - Hasieran diru asko behar dugun arren, prezio eskuragarriak jartzen saiatuko gara, gure ideiarekin ados dagoen edozeinek kontsumitu ahal izateko.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**
 - Gure markak gure planetako arazoaz kontzientziatuta dagoen jendea izango du bezero, hau da, gustuko duten produktu bat kontsumitzen duten bitartean arazo ekologiko bati, portzentu txikian izan arren, aurre egin nahi diotenak dira.



GUK EGINDAKO WEB GUNEA:

